

HAUR MISIOLARIEN EGUNA 2021  
“Jesus Haurrarekin, Nazaretera, FAMILIA  
GARA!”



# JESUS HAURRAREKIN, NAZARETERA FAMILIA GARA!

## HELBURUAK

- Jesusen familiaren balioez jabetu; balio horiek geure familian bizi ditzakegula konturatu.
- Munduko familia guztiok giza familia osatzen dugula konturatu. Guztiok gara anai eta arreba, Jainkoaren seme eta alaba.
- Konpromiso zehatza hartu.

## IKUSI

Kulturaren eta inguruabarren arabera, askotariko familiak daude munduan. Beste herrialde batzuetako familiez zer ezagutzen dugun galdetu neska-mutikoei.

-Nolakoak diren beren etxeak, jatekoa, jantziak, hizkuntzak, lanak, baliabide naturalak...

-Familia afrikarrak, normalean, zabalagoak izaten dira lehengusu-lehengusinak, osaba-izebak eta aiton-amonak barne hartzen dituztelako. Asko laguntzen diote elkarri seme eta alaben hazkuntzan, lanera ateratzen direnean...

Txinako familiak, ordea, txikiagoak dira eta, esate baterako, Ipar Poloan, basamortuan,... familiak leku zailtan bizi dira.

Makina bat lekutan, gainera, gerraren eraginez sufritzen ari diran eta, Jesusen familiari gertatu zitzaion bezala, beren herria utzi eta ihes egin behar duten familiak daude.

## EPAITU


### JESUSEN FAMILIA

Nolako zen Jesusen familia?

## ETA BANATZEN

Txikitatik, Jesusek maitasuna banatu zuen bere inguruan. Egunero, amari laguntzen zion putzutik ura ekartzen eta aitari aroztegian laguntzen zion zura arrabotzaz leuntzen eta makilak lantzen. Haur berezia zen, etxean nahiz kanpoan atentzioa ematen zuena.





JESUS NAZARETEKO HAURRAREKIN

MANDEMEAREN OROITZAPENAK

Nazareteko etxea, apala zen, baina oso gustuko nuen! Izan ere, etxe oso alaia zen. Bueno, ez dakit etxeak alai ala haserre egon daitezkeen, baina hau alaia zen, Jesus, Maria eta Josek asko maite zutelako elkar eta nabari zelako hori.

Batzuetan, lanak amaitu ondoren, muturra leihoetako batean pausatuz atseden hartzen nuen nire ugazaba maiteen eta mutil koskor bihurtzen ari zen beren Haurraren bizitzako gorabeherak behatzen nituen. Gurasoek makina bat gauza irakasten zioten, haurrarekin jolasten zuten, adiskideez galdetzen zioten...

Oso gustuko nuen elkarrekin otoitz egiten ikustea, Jainkoari eskerrak emanez, Jainkoa goratuz edo Hari laguntza eskatuz. Tarteka, Jesusek, bere gelara joan eta isilean otoitz egiten zuen. Altxatzen zirenetik oheratzen zirenera arte, hirurek Jainkoa bedeinkatzen zuten. Jainkoa zen etxeko bizilagun nagusia!

Nire leihotik, Joseren tailerra ikusten nuen. Ohola jarri zuen zutik hormaren ondoan eta Jesusen altuera markatzen zuen bertan. Jesusek bizkarra jartzen zuen oholaren kontra aitaren esana eginez eta honek koska egiten zuen oholean erreminta batez haurraren burugainean. "Baina zenbat hazi dan mutiko hau... Neu baino altuagoa izango da!", esaten zuen. Mariak urrunetik erantzuten zuen: "Ez, Jose, DAGOENEKO handiagoa da...". Era hirurek barre egiten zuten.

JARRAITUKO DU...

Zer diosku Ebanjelioak Jesusen familiaz? (Lukas 2, 40)

Irakurgaitik ateratako *balioak* azaldu eta orrian idatzi.

## ETA GURE FAMILIA?

Bakoitzak bere familia du. Familia bakoitza bakarra da eta bat bera ere ez da perfektua. Baina, delako ekintza, balio... jakin batzuen eraginez, pertsonak zoriontsuago izan daitezke familian. Aipatutako balio horiek Jesusen familiaren balioen antzekoak dira.

Guztiok erantzuteko: **Noiz gaude gusturago familian?**

Erantzunak idatziz jasoko ditugu:

-*Elkarri laguntzen diogunean.*

-*Gauzak ondo atera daitezzen laguntzen dugunean: ohea egin, gauzak batu, harrikoa egin...*

-*Gaixorik den senideren batez arduratzen garenean eta zaintzen dugunean.*

-*Haserretuz gero, elkarri barkamena eskatzen diogunean.*

-*Norbaiti detaileren bat egiten diogunean edo kezkatuta ikusi eta berataz galdetzen dugunean.*

-*Etxekoei maite ditugula eta maite gaituztela esaten diegunean.*

-*Elkarri begirunea diogunean.*

-*'Eskerrik asko' eta 'mesedez' esaten dugunean.*

-*Senide guztiok biltzen garenean, garenagatik, dugunagatik eta bere MAITASUNAGATIK Jainkoari eskerrak emateko.*

**Zer gertatuko litzateke familia guztiok balio horiek landuko bagenitu? Hobeto egongo ginateke munduan? Benetako familia, Jainkoaren seme eta alaba izango ginateke.**

## JARDUERA: ALTXORRA DAGOEN LEKURA GARAMATZAN BIDEA

Familia bakoitza, altxorra da. Altxorra dagoen lekura iristeko, neska-mutiko bakoitzak deigarrien gertatu zaizkion, edo Jesusen familiaren antzeko izateko lagungarrien izan daitezkeen balioak idatziko ditu. (Ikusi jardueraren orria)

### EKIN - KONPROMISOA

- Banatzeko itsulapikoaren\* lamina banatu (kutxa horretan gordeko dugu gure altxorra). Eranskina.

Kutxa/itsulapikoa egin ondoren, taldean konpromisoa zehaztu: Lagun bakoitzak, katekesian edo jardueran agertu eta Jesusen familiaren antzeko izateko lagungarri diren balio edo jarreretako bat aukeratuko du. Paperean idatzi eta altxorraren kutxan sartu.

Gero, etxean emango dute jardueraren berri eta atera diren balioetako batekin konpromiso txiki bat idazteko eta familia altxorraren kutxan sartzeko eskatuko diote senide bakoitzari

\* (Ordezkaritzan dugu itsulapikoa. Kartulinazkoa da eta ondo eusten dio zutik, beraz, nahi izanez gero, etorri Misiotarako ordezkartzara jasotzera).

### OTOITZA

Jesus, zure laguntza behar dugu gure familiak gero eta antzekotasun handiagoa izan dezan zure familiarekin eta denok izan dezagun bizitzeko lekua eta maite gaituzten eta maite ditugun pertsonak ematen dizkigun familia. Gogoan ditugu une honetan misiolariak; hauek beren etxe eta familiak utzi eta beste leku batzuetara joan ziren, munduko hainbat lekutako beste familia batzuekin batera Jainkoaren Maitasuna banatzeko eta jasotzeko eta familia guztiak duintasun eta maitasunez bizi daitezzen lan egiteko.

## FAMILIA BAKOITZA ALTXORRA DA

➔ Nola iritsi altxor horretara? Zer egin, gure familia Jesusen familiaren antzeko izan dadin?



Elkarri lagundu.



Barkamena eskatu haserretzen garenean.



Mesedez eskatu eta eskerrak eman



Zenbat maite dugun elkar adierazi




Norbait gaixorik, atsekabeturik... dagoenean, zaindu



Familian Jainkoari eskerrak eman  
egunero gutariko bakoitzari ematen digun  
MAITASUNAGATIK

## EGUNDOKO ALTXORRA



# FAMILIA BAKOITZA ALTXORRA DA

➔ Zer egin gure familia Jesusen familiaren antzeko izan dadin? Nola iritsi altxor horretara?



1 \_\_\_\_\_.



2 \_\_\_\_\_



3 \_\_\_\_\_



4 \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_



5 \_\_\_\_\_



6 \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_



**Egundoko altxorra**

